

Etixerako bazka egiten duten baserritarrek plastikoa erosteko dirulaguntzaren oinarri arautzaileak eta 2025eko deialdia

1. Helburua

Gipuzkoako baserritarrei, haien ustiatégian eta jabetzan duten makineriarekin, belar bolak egiteko beharrezkoa duten plastikoa erosteko dirulaguntza ematea.

2. Onuradunak

Nekazaritza ustiatégien titular diren pertsona fisiko eta juridikoak, baldin eta hirugarren ataleko baldintzak betetzen badituzte.

3. Onuradun izateko bete beharreko baldintzak

Dirulaguntza honen onuradun izateko, nahitaezkoa da honako baldintza guztiak betetzea:

- Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez izatea.
- Deialdia argitaratu aurreko urtean Mendiko Kalte-ordain Konpentsatzailea kobratu izana.
- Eskatzailea titular den ustiatégia Gipuzkoako Ustiatégien Erroldan alta emanda egotea, eta egoitza fiskala Gipuzkoan edukitzea.
- Eskatzailea titular den ustiatégiak gutxienez NLU (Nekazaritzako Lan Unitatea) bateko lan jarduna izatea.
- Plastikoa egoitza fiskala Gipuzkoan duen baserritarrentzako zerbitzu kooperatiba batean erosi izana.
- Eskatzailea belar bolak egiteko erabiliko den makineriaren titularra izatea (plastikoa jartzekoa edo enzintadora). Salbuespena izango da, eskatzailea nekazaritzako makinak erabiltzeko kooperatiba bateko bazkide izan eta kooperatiba horren izenean dagoen makineria erabiltzea.
- Belar bolak egiteko erabiliko diren lursailak eskatzaileak aitortu izana, aurtengo aitorpenean.
- Dagokion urtean makinari zerbitzuak jaso ez izana edota hargatik dirulaguntzarik jaso ez izana, arto berdearen bilketako zerbitzuak salbu.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko beste baserritarrei makinari zerbitzurik ez ematea.
- Eskatutako dokumentazio guztia behar bezala betetzea; eta, behar den epean, Landaolari helaraztea (makinaria@landaola.eus helbide elektronikora).

4. Lagunduko diren zerbitzuak

Hamabost (15) eta laurogei (80) arteko plastiko-biribilki (rollo) kopuruen erosketak lagunduko dira. Horretarako, beharrezkoa da gutxienez 15 plastiko-biribilki erostea.

5. Dirulaguntzaren zenbatekoa

5.1. Orotara, 15.000 euro bideratuko dira, belar bolak egiteko plastikoaren erosketa laguntzeko.

5.2. Baserritar bakoitzari lagunduko zaion zenbatekoa erositako plastiko-biribilki kopuruaren arabera izango da. Horrela, bada, erosi eta justifikatutako plastiko-biribilki kopurua erreferentziazko tarifaren % 15arekin biderkatuko da, dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko.

Ildo horretan, erreferentziazko tarifa izango da justifikatutako faktura guztietan plastiko-biribilki unitatearen prezio merkeena.

5.3. Eskatzailea nekazaritzako makinak erabiltzeko kooperatiba bateko bazkide den kasuetan —betiere kooperatiba horretako makineria erabiltzen badu—, aurreko paragrafoan adierazitako dirulaguntzari % 10eko laguntza osagarria gehituko zaio (aurreko puntuan adierazitako zenbatekoaren gainean).

5.4. Eskaera guztiak bere osotasunean ordaintzeko beharrezko diru kopuruak aurrekontu erabilgarria gaindituko balu, dirulaguntzaren zenbatekoaren murrizketa hainbanatu egingo da.

6. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Hirugarrengoei makineria zerbitzuak ematen dizkieten pertsonak —Landaolarekin hitzarmena izan edo zerbitzu emaileen erroldan izena emanda daudenek— ezingo dute dirulaguntza hau jaso.

Bestelako dirulaguntzei dagokienean, onuradunek beste dirulaguntza batzuk jaso ahal izango dituzte, dirulaguntzen izaera edo haiek ematen dituen organo edo administrazioa edozein delarik ere.

7. Eskaerak aurkezteko epea eta lekua

Eskaera eta ziurtagiri guztiak aurkezteko 2025eko urriaren 15 eta 2025eko azaroaren 15 arteko epean aurkeztu beharko dira. Epe horretatik kanpo aurkeztutakoak ez dira diruz lagunduko.

Eskaerak Landaolako helbide elektroniko honetara helaraziko dira: makinaria@landaola.eus. Eskaerarekin batera, beharrezko dokumentazioa atxikituko da.

8. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

Dirulaguntza eskaera egitean, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Eskaera orria, eskatzailearen datuekin.
- Bolak egiteko erabiliko diren lursailen identifikazioa, SIGPAC kodea adieraziz.
- Bolak egiteko erabiliko den makineriaren titulartasuna justifikatzeko dokumentua, hala badagokio.

- Eskatzailea nekazaritzako makinak erabiltzeko kooperatiba bateko bazkide izatearen frogagiria, hala badagokio.
- Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez izatearen ziurtagiria.
- Plastikoa egoitza fiskala Gipuzkoan duen baserritarrentzako zerbitzu kooperatiba batean erosi izanaren ziurtagiria.
- Erositako plastikoen fakturak eta ordaindu izanaren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

9. Jarraipena

Gipuzkoako Foru Aldundiko zein Landaolako teknikariek lanen ikuskapenak egin ditzakete. Praktika ez egokiren bat topatu edo identifikatuko balitz, dirulaguntza bertan behera geratzeko arrazoi izan liteke.

10. Dirulaguntzaren ebazpena

Dirulaguntzaren onuradunen zerrenda eta zenbatekoen zehaztapena Landaolako webgunean argitarako da.